

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

ZEIN DA ZUEN BEZERO NAGUSIA?

Ezkerraldean, mugikorraren kokapena duten jendearentzat, baita seguru sentitzen ez diren biztanleentzat ere.

Segurtasun pertsonala bermatzeko baliabide azkar eta fidagarria behar duten pertsonak.

Adibidez:

- Indarkeria matxista jasateko arriskuan dauden edo biktima diren emakumeak.
- LGTBI+ kolektiboko pertsonak, homofobia edo jazarpena pairatzen dutenak.
- Arrazismoa edo diskriminazio arraziala jasaten duten pertsonak.
- Gauetan bakarrik mugitzen diren gazteak, segurtasun handiagoa behar dutenak.
- Egoera ahulean dauden adineko pertsonak.

ZEIN EZAUGARRI KOMUNAK DITUZTE?

- Egoera arriskutsuetan erantzun azkarra behar dute.
- Aplikazioarekiko konfiantza eta diskrezioa baloratzen dituzte.
- Babes-sentsazioa emango dien tresna baten beharra dute.
- Espazio publikoetan edo etxean ustekabeko arriskuak izan ditzakete.
- Mugikorretik erabiltzeko erraza izatea ezinbestekoa da.

NOLA SEGMENTATU MERKATUA BEHARREN ARABERA?

Bezero potentzialak talde hauetan bana daitezke:

1. Segmentua: Indarkeria matxistaren aurkako segurtasuna

- Bai emakume gazteak bai helduak
- Beharrak: alerta azkarra, geolokalizazio segurua, laguntza-sarearekin konexioa.

2. Segmentua: LGTBI+ pertsonen segurtasuna

- Homofobia edo jazarpena pairatzen duten pertsonak.
- Beharrak: espazio seguruak, alertak, ibilbide seguruak.

3. Segmentua: Arrazakeriaren aurkako segurtasuna

- Pertsona arrazializatuak edo migratzaileak.
- Beharrak: laguntza-zerbitzuetara sarbide azkarra, gertakarien erregistro segurua.

4. Segmentua: Segurtasun komunitarioa oro har

- Ezkerraldeako edozein herritar.
- Beharrak: zona arriskutsuen oharrak, laguntza edo abisu komunitarioak